

## XXI. MENDEAN HAMAIKA EUSKARA

Deskribapena: Lehenengo imajina desberdinak ageri dira zuri-beltzean eta, ondoren koloretan.

Kike (off ahotsa): Inoiz pentsatu al duzue zer izango litzatekeen bizitza zuri-beltzean ikustea? Zuri eta beltz eta bi kolore horien arteko gris eskala baino ez, mundua antzeman eta atzemateko. Ñabardura pila galduko genituzke, bizitzaren kolore festa esaterako. Zorionez, ez dago koloredun betaurrekoak janzteko beharrik munduaren aniztasuna ikusteko baina, egia da, ikusi nahi ez duen itsua baino okerragorik ez dagoela. Akaso, distantzian egongo da kakoa, elur maluta guztiak berdina direla pentsa daiteke baina gerturatuta, bakoitza, bakarra eta ezberdina dela antzemango dugu.

Deskribapena: Kike ikasgela batean ageri da arbelean idazten eta ikasleei kontuak argitzen.

Kike: “Hara! Aniztasuna altxor bat da mundu guztian, izan genitzake X ala Y, edo izan ditzakegu A, B eta C eta hauek ere izan genitzake edo larriz edo xehea. Are gehiago, izan genitzake - ala + eta hau ekuazioa amaigabea den bezala, konbinaketak ere infinitoak dira, kosmos zabalean bezala. Baina orain, gatozen euskerara. Batetik daukagu hizkuntza, eta hementxe daukagu gure kasuan batetik daukagu batua eta bestetik daukagu euskalkiak eta euskalkietan daukagu gainera azpi euskalkiak eta hemen daukagu gainera euskera formala edo euskera informala eta gero hemen daukagu hiztunak: batua bakarrik dakitenak esango genuke euskaldun berriak, guk horiekin batera batetik erdera erabiltzen dutenak, gaztelania, edo frantsesa edo baita arabiera ere. Garbi gelditu da?”

Ikasle bat: “Ez, nik ez dut ezer ulertu!”

Kike: “Baina, ikasgaiaren funtsa ulertuko zenuen, ezta?”

Ikasle bat: “Ez.”

Kike: “Hogeita batgarren mendeko euskera dugu hizpide eta gure tribu haundian, azkenengo hamarkada hauetan, hamaika tribu eta hamaika euskera sortu dira.”

Ikasle bat: “Baina euskera ez da bakarra?”

Kike: “Ee, bai baina ez.”

Ikasle bat: “Orduan euskaldunok ez dugu talde bakarra osatzen, ezta?”

Kike: “Ez baina bai. Beno, has gaitezen hasieratik mantso-mantso eta ea dena garbi-garbi azaltzen dugun.”